

**JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA****2665**

AGINDUA, 2007ko maiatzaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautu zituen 2002ko abenduaren 11ko Agindua aldatzen duena.

2002ko abenduaren 27ko EHAAn, 247. zenbaki-koan, 2002ko abenduaren 11ko Agindua argitaratu zen; haren bidez, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautu ziren. Horrela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak mota horretako enpresei euren ezaugarri bereziei eta premiei egokitutako laguntza-formulak eskaintzeko programa bat jarri zuen abian.

Arau horretan, bi motatako diru-laguntzak aurreikusten dira: entitate sustatzaileentzat, laneratzeko enpresak sor ditzaten; eta laneratzeko enpresentzat, aurrera egin dezaten.

Aipatutako 2002ko abenduaren 11ko Aginduko 17. artikulua ezartzen duenez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, sailburuaren Aginduen bidez, urtero egingo du agindu horretan aurreikusitako diru-laguntzen ildoetarako deialdia, dagokion aurrekontu-horniduraren eta eskabideak aurkezteko epearen aipamenearekin. Programaren berezitasuna kontuan harturik, epe hori dagokion ekitaldi ekonomiko osoan luzatuko da.

Arauen aurreikuspen horretan oinarrituta, aurreko urteetan segidan egindako deialdietan, laguntzok eskatzeko honako epe hau finkatu da: deialdiaren aginduen ondorioak hasten zirenegunetik urte bakoitzeko abenduaren 31 artekoa.

Programaren espedienteak kudeatzean aurreko ekitaldietan izandako esperientzia aintzat hartuta, beharrezkoa da indarraldi horren azken epea murriztea, Ogasun Sailak ekitaldia ixteko epeei buruz dituen arauen eskakizunetara egokitze aldera.

Halaber, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50. artikuluan izandako aldaketa jasotzeko xedarekin —aldaketa hori Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Azken Xedapenetako seigarrenak eragin du—, 2002ko abenduaren 11ko Aginduan araututako laguntzetarako deialdian parte hartzea debekatu egiten zaie sexuarengatik egindako diskriminazioa dela-eta administrazio- edo zigor-arloko zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei, baita Gizon eta Emakumeen

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL****2665**

ORDEN de 3 de mayo de 2007, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se modifica la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

En el BOPV n.º 247, de 27 de diciembre de 2002, se publicó la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción. Con ello, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, puso en práctica un programa para ofrecer a este tipo de empresas unas fórmulas de apoyo adaptadas a sus particulares características y necesidades.

En dicha norma se prevén subvenciones destinadas a las entidades promotoras para la creación de empresas de inserción y subvenciones dirigidas a las propias empresas de inserción para su sostenimiento.

El artículo 17 de la citada Orden de 11 de diciembre de 2002 establece que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, mediante Orden de su Consejero, convocará anualmente las líneas de ayudas previstas en esta Orden, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente y del plazo de presentación de solicitudes, que dada su especificidad se extenderá durante el resto del ejercicio económico de que se trate.

En base a esta previsión de la norma, en las sucesivas convocatorias realizadas para los años precedentes se ha venido fijando el plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas desde la fecha en que surtía efectos la Orden de convocatoria hasta el 31 de diciembre de cada año.

Con la experiencia de la gestión de los expedientes de este programa en los pasados ejercicios resulta necesario recortar el plazo final de dicho periodo de vigencia para adecuarlo a las exigencias de la normativa del Departamento de Hacienda en materia de plazos para el cierre de ejercicio.

Asimismo, y con objeto de recoger la modificación producida en el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, modificación producida por la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se incorpora la prohibición de poder concurrir a las ayudas reguladas la Orden de 11 de diciembre de 2002, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón

Berdintasunerako legea dela-eta debeku horrekin zigortutakoei ere, hori guztia dagokion zigorra indarrean dagoen bitartean. Horren ondorioz, laguntzen eskatzaileek aurkeztu behar dituzten agirien artean, debeku horren pean ez egotearen zinpeko aitortpena ere aurkeztu beharko dute.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) 49.5 artikulua ezartzen duenez, ekonomia-ekitaldi bakoitzean, Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, diru-laguntzak emateko arauak eguneratu edo berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, programen diru-laguntzen arauak ezarriko dira, eta, bere garaian indarraldirik zehaztu ez zitzaizen diru-laguntzetarako deia egingo da.

Ildo horretan, abenduaren 28ko 9/2006 Legea onartuta –Euskal Autonomia Erkidegoaren 2007ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu–, eta 2002ko abenduaren 11ko Aginduko 17. artikuluan aurreikusitako gaikuntza gauzatze aldera, agindu honetako xedapen gehigarri orobat 2007ko programarako deialdia egiten da.

#### EBATZI DUT:

**Lehenengo artikulua.**– 2002ko abenduaren 11ko Aginduko (laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautzen dituen) 17. artikulua aldatzea; hona testu berria:

«Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, bere sailburuaren aginduaren bidez, urtero egingo du Aginduan aurreikusitako laguntzak emateko deialdia, dagokion aurrekontu-esleipena eta eskabideak aurkezteko epea jasotzen duena.»

**Bigarren artikulua.**– 2002ko abenduaren 11ko Aginduko (laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautzen dituen) 14. artikuluari 3. idatz-zati berri bat eranstean zaio; hona testu berria:

«3.– Entitate onuradunek ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzeko zigor- edo administrazio-arloko zehapenik izango, ezta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekurik ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoari jarraiki sexu-diskriminazioa dela-eta gertatutakoak barne.»

de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Como consecuencia de ello, se añade entre la documentación que deben aportar los solicitantes de las ayudas la declaración jurada de no estar incurso en tal prohibición.

Por otra parte, el artículo 49.5 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

En este sentido, habiéndose aprobado la Ley 9/2006, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2007, y en ejercicio de la habilitación prevista en el citado artículo 17 de la Orden de 11 de diciembre de 2002, en la disposición adicional de la presente Orden se realiza asimismo la convocatoria del programa para el año 2007.

#### DISPONGO:

**Artículo primero.**– Se modifica el artículo 17 de la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, que queda redactado de la manera siguiente:

«El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, mediante Orden de su Consejero, convocará anualmente las líneas de ayudas previstas en esta Orden, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente y del plazo de presentación de solicitudes.»

**Artículo segundo.**– Se adiciona un nuevo párrafo 3 al artículo 14 de la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, con la siguiente redacción:

«3.– Las entidades beneficiarias no deberán encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o incurso en prohibición legal que les inhabiliten para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.»

**Hirugarren artikulua.**— 2002ko abenduaren 11ko Aginduko (laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautzen dituena) 19. artikuluko 1. paragrafoari idatz-zati berri bat (f) eransten zaio; hona testu berria:

«f) Entitate eskatzailearen zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita; Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.»

**Laugarren artikulua.**— 2002ko abenduaren 11ko Aginduko (laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak arautzen dituena) 19. artikuluko 2. paragrafoari idatz-zati berri bat (m) eransten zaio; hona testu berria:

«m) Entitate eskatzailearen zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita; Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren (otsailaren 18ko 4/2005) Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.»

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lebenengoa.**— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako deia egiten da 2007rako; laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen ditu agindu horrek. Aurten eskabideak aurkezteko epea agindu hau indarrean sartzen denean hasiko da, eta 2007ko urriaren 31n amaituko da.

**Bigarrena.**— 2002ko abenduaren 11ko Aginduaren helburua betetze aldera zuzendutako baliabide ekonomikoei dagokienez, 2007rako gehienez 8.577.380,90 euro baliatuko dira, honela banatuta: 2007ko ekitaldirako, 3.540.901,90 euroko ordainketa-kreditua; 2008ko ekitaldirako, 2.190.901,00 euroko konpromiso-kreditua; 2009ko ekitaldirako, 2.117.578,00 euroko konpromiso-kreditua, eta 2010eko ekitaldirako, 728.000,00 euroko konpromiso-kreditua.

**Artículo tercero.**— Se adiciona una letra f) al párrafo 1 del artículo 19 de la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, con la siguiente redacción:

«f) Declaración jurada de la Entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.»

**Artículo cuarto.**— Se adiciona una letra m) al párrafo 2 del artículo 19 de la Orden de 11 de diciembre de 2002, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, con la siguiente redacción:

«m) Declaración jurada de la Entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.»

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— Se convocan, para el año 2007, las ayudas previstas en la Orden de 11 de diciembre de 2002, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción. Para el presente año, el plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas comenzará a contar desde la fecha en que entre en vigor la presente Orden y se extenderá hasta el 31 de octubre de 2007.

**Segunda.**— Por lo que se refiere a los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la Orden de 11 de diciembre de 2002, se destinará para el año 2007 un total máximo de 8.577.380,90 euros, distribuido mediante un crédito de pago para el ejercicio 2007 de 3.540.901,90 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2008 de 2.190.901,00 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2009 de 2.117.578,00 euros y un crédito de compromiso para el ejercicio 2010 de 728.000,00 euros.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 3a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## 2666

EBAZPENA, 2007ko martxoaren 6koa, Gizarte Ekonomiako zuzendariarena, Gizarte Ekonomian enpresa-lankidetzaren bultzatzeko dirulaguntzak ezartzen zituen 2006ko uztailaren 5eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda argitaratzeko dena.

Dirulaguntzen publikitate printzipioaren eta aipatutako aginduak 12.4 artikuluan dioenaren arabera, honako hau

## EBATZI DUT:

2006ko uztailaren 5eko Aginduaren arabera laguntzak eskatu ondoren onartu diren dirulaguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Eskabideari emandako espediente-zenbakia, entitate onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira, erabaki honen I. eranskinean azaltzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 6a.

Gizarte Ekonomiako zuzendaria,  
JESÚS ALFREDO ISPIZUA ZUAZUA.

## DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2007.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## 2666

RESOLUCIÓN de 6 de marzo de 2007, del Director de Economía Social, por la que se hace pública, la relación de entidades beneficiarias de las ayudas previstas en la Orden de 5 de julio de 2006 por la que se establecen las ayudas para la intercooperación empresarial en la Economía Social.

En cumplimiento de la obligación establecida por el artículo 12.4 de la citada Orden, derivada del principio de publicidad de las subvenciones concedidas en base a la misma,

## RESUELVO:

Acordar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de la relación de entidades beneficiarias de las subvenciones concedidas, al amparo de la Orden de 5 de julio de 2006, con expresión del número de expediente otorgado a la solicitud, nombre de la entidad beneficiaria y cuantía de la subvención concedida, según figura en el anexo I de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de marzo de 2007.

El Director de Economía Social,  
JESÚS ALFREDO ISPIZUA ZUAZUA.